



## LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA

AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE  
LLODIO

2015 / 5 AKTA

ACTA 5 / 2011

**Bilera:** Ohiko Osoko Batzarra.**Eguna:** 2011-05-16**Ordua:** 09:00 – 10:10**Tokia:** Herriko Etxeko Bilkura Areto nagusia.**Sesión:** Ordinaria de Pleno**Día:** 16-05-2011**Hora:** 09:00 – 10:10**Lugar:** Salón Sesiones Municipal.**Bertaratuak:**

Jon Karla Menoio Llano, Alkatea.  
 Juan José Unzaga Bilbao, EAJko zinegotzia.  
 Leire Orueta Bergara, EAJko zinegotzia.  
 María Izaskun Arregi Zubiaur, EAJko zinegotzia.  
 Izaskun Miñano Larrea, EAJko zinegotzia.  
 Pedro María Isusi Camino, EAJko zinegotzia.  
 Juan Antonio Bilbao Gallastegi, EAJko zinegotzia  
 Txaro Sarasua Diaz, PSE-EEko zinegotzia.  
 Juan Ángel Gomez Calero, PSE-EEko zinegotzia  
 Paqui Macías Gonzalez, PSE-EEko zinegotzia.  
 Carlos De Urquijo Valdivielso, PPko zinegotzia.  
 Rosa Torres Corres, PPko zinegotzia.  
 Peli Ortiz de Zarate Constenla, Atxiki Gabeko Kidea.  
 Gaizka Amorrortu Bobeda, Atxiki Gabeko Kidea.  
 Oihana Gomara Pikaza, Atxiki Gabeko Kidea.  
 Ziortza Uriarte Bilbao, Atxiki Gabeko Kidea.  
 Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kidea.

**Asistentes:**

Jon Karla Menoio Llano, Alcalde.  
 Juan José Unzaga Bilbao, concejal de PNV.  
 Leire Orueta Bergara, concejal de PNV.  
 María Izaskun Arregi Zubiaur, concejal de PNV.  
 Izaskun Miñano Larrea, concejal de PNV.  
 Pedro María Isusi Camino, concejal de PNV.  
 Juan Antonio Bilbao Gallastegi, concejal de PNV.  
 Txaro Sarasua Díaz, concejal del PSE-EE.  
 Juan Ángel Gomez Calero, concejal del PSE-EE.  
 Paqui Macías González, concejal del PSE-EE.  
 Carlos De Urquijo Valdivielso, concejal del PP.  
 Rosa Torres Corres, concejal del PP.  
 Peli Ortiz de Zarate Constenla, Miembro No Adscrito.  
 Gaizka Amorrortu Boveda, Miembro No Adscrito.  
 Oihana Gomara Pikaza, Miembro No Adscrito.  
 Ziortza Uriarte Bilbao, Miembro No Adscrito.  
 Josu Zabala Atxa, Miembro No Adscrito.

Arantza Lili Salazar, Idazkaria.

Arantza Lili Salazar, Secretaria.

Segituan eta Udal Buruaren aginduz, eguneko gaien zerrendan sartutako gaiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako erabaki hauexek hartu ziren:

A continuación y de orden de la Presidencia se procedió al estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día, adoptándose los siguientes acuerdos:

**36.-ALDAKETA URBANISTIKOAK  
 ESKATUZ BERLOJATZEN  
 ELKARTEAREN IZENEAN ALVAR  
 BARRIOS MEDINA JAUNAK AURKEZTU  
 DUEN IDAZKIA.- OSOKO BILKURARAKO  
 BATZORDE INFORMATIBOAREN  
 IRIZPENA.- ONARTUA.**

**36.-ESCRITO DE DON ALVARO BARRIOS  
 MEDINA, EN NOMBRE DE LA  
 ASOCIACIÓN BERLOJATZEN  
 SOLICITANDO MODIFICACIONES  
 URBANÍSTICAS.- DICTAMEN DE LA  
 COMISIÓN INFORMATIVA DE ASUNTOS  
 DE PLENO.- APROBADA.**

Idazkariak irakurri du Berlojatzen Elkartek, 2011/05/16ko sarrera erregistroko 5.426 zenbakiaz, “aldaketa urbanistikoak eskatuz”, aurkeztu duen idazkia, eta hitzez hitz ondorengoa dioena:

La Secretaria General da lectura del escrito presentado por la Asociación Berlojatzen (nº 5.426 de registro de entrada, de 16/05/2011) sobre “Solicitando *modificaciones urbanísticas*” que, literalmente transcrita, dice lo siguiente:



“Dagokion ordezkaritza baliatuz, Udalari eskatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurak jarraian adierazitako eskakizunak eztabaidatu eta bozka ditzala, horretarako **MOZIO** gisa izapidetuta, edo egokien irizten dion moduan izapidetuta, betiere, Toki Erakundeen Antolakuntzaren, Jardumbidearen eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat.

“Que, actuando en la representación que ostenta, solicita de la entidad Municipal que someta a debate y votación por parte del Pleno las peticiones que se relacionan a continuación, mediante su tramitación como MOCIÓN de conformidad con el artículo 97.3 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades locales, o en su caso, mediante la tramitación en la forma que se considere más oportuna

#### ESKAKIZUNEN XEDEA

Laudion, Doctor Fleming kaleko 5 zenbakiko, Jose Arrue kaleko 1 eta 3 zenbakietako, Virgen del Carmen kaleko 4 zenbakiko eta Areta kaleko 4 eta 6 zenbakietako ondasun higiezinak hiri-antolamendutik kanpo geratuko direla argitaratu da. Horrek etorkizunean sor ditzakeen arazoei aurre egite aldera, gutxieneko konpromisoak hitzartzea da eskakizun hauen xedea.

#### OBJETO DE LAS PETICIONES

El objeto de las presentes peticiones se concreta en alcanzar compromiso de mínimos que sirva de punto de partida para la futura solución de la problemática generada por la información pública, relativa a la posible declaración de fuera de ordenación de los inmuebles Doctor Fleming nº 5 y Pintor Jose Arrue nº 1 y 3, Virgen del Carmen 4 y Areta 4 y 6 de Llodio.

#### ESKAKIZUNAK

##### A) ARETA KALEKO 4 ETA 6 ZENBAKIETAKO JABEEN ERKIDEGOAK

Areta kaleko 4 eta 6 zenbakietako jabeen erkidegoen eskakizunak honako hauek dira:

#### PETICIONES

##### A) PROPIETARIOS DE LAS COMUNIDADES ARETA 4 Y 6

En relación con los propietarios de las comunidades de Areta 4 y 6 se solicita lo siguiente:

1.- Lehenik eta behin eskatzen dute Udalak ebazpena eman dezala, eta espresuki adieraz dezala Laudioko Areta kaleko 4 eta 6 zenbakietako eraikinak, azkenean, ez direla hiri-antolamendutik kanpo geratuko. Halaber, Udalari eskatzen diote idatziz jaso dezala Laudioko Areta kaleko 4 eta 6 atariei dagokien eraikina finkatutako hiri-lur gisa sartuko dela etorkizuneko HAPOan.

1.- En primer lugar se precisa que se emita resolución municipal que refleje el expreso reconocimiento de la Entidad local de que finalmente las construcciones ubicadas en Areta 4 y 6 de Llodio no han de ser declaradas fuera de ordenación. Asimismo, se solicita que el Ayuntamiento deje constancia de que el inmueble constituido por la edificación correspondiente a los portales 4 y 6 de la calle Areta de Llodio se mantendrá dentro del suelo urbano consolidado en el futuro PGOU.

2.- Udalari eskatzen diote URA Uraren Euskal Agentziari txostena eskatu diezaiola. Txosten horretan zalantza izpirik gabe adierazi behar du Areta kaleko 4 eta 6 zenbakiei dagokien eraikinak, agentziaren eskumen-eremuari

2.- Se requiere del Ayuntamiento que recabe informe de URA, la Agencia Vasca del Agua, en el que se ponga de manifiesto de modo inequívoco que la construcción sita en la calle Areta 4 y 6, en lo que respecta al ámbito de su competencia no vulnera la normativa urbanística ni los Planes de



*dagokionez, ez duela urratzen ez hirigintzaren arloko araudirik ezta antolamendu-plan orokorrik ere, baizik eta antolamenduaren barruan egoteko behar diren legezko baldintza guztiak betetzen dituela.*

3.- Udalari eskatzen diote hurrengo legegintzaldiko lehenengo sei hilabeteen barruan ondasun higiezin horren ingurunean hainbat hobekuntza egiteko konpromisoa har dezala bere gain.

09:05ean udal-langileak sartu dira Bilkura Areto Nagusira. Pankartak eta kartelak daramatzate, eta honako lelo hauek dituzten orriak jaurti dituzte:

“Murrizketarik ez”  
 “Negoziazioa bai”  
 “Alcalde, negocia ya”  
 “Inposaketarik ez”

Udal-langileetako bik kontsigna sindikalak oihukatuta dituzte.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Atera zaitezte Bilkura Aretotik.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Atera zaitezte Bilkura Aretotik.

Jarraian, udal-langileak Bilkura Aretotik atera dira, ordezkari sindikalak izan ezik. Ordezkari horiek zutik jarraitzen dute Aretoan, kartelak eta pankartak eskuan.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Bilkura Aretotik ateratzeko esan dizuet.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Berriro diot. Atera zaitezte Bilkura Aretotik.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Bilkura bertan behera geratu da.

Bilkura bertan behera geratu, eta EAJ udal-taldeko zinegotziak, PPko zinegotziak eta PSE-EE udal-taldeko zinegotzi Juan Angel Gomez Calero Bilkura Aretotik atera dira.

*ordenación sectoriales, sino que cumple con los requisitos legales necesarios para no verse afectada por la calificación de fuera de ordenación.*

3.- Se solicita al Ayuntamiento el compromiso de definir dentro de los seis primeros meses de la siguiente legislatura, una serie de mejoras en el entorno del inmueble.

A las 09:05 horas acceden trabajadores municipales al Salón de Plenos portando pancartas y carteles y arrojando octavillas con los siguientes lemas:

“Murrizketarik ez”  
 “Negoziazioa bai”  
 “Alcalde, negocia ya”  
 “Imposaketarik ez”

Dos de los trabajadores municipales gritan consignas sindicales.

**JON KARLA MENOIO LLANO.** Salgan inmediatamente del Salón de Plenos.

**JON KARLA MENOIO LLANO.** Salgan inmediatamente del Salón de Plenos.

A continuación, abandonan el Salón de Plenos los trabajadores municipales salvo varios representantes sindicales que continúan de pie portando carteles y pancartas.

**JON KARLA MENOIO LLANO.** He dicho que salgan inmediatamente del Salón de Plenos.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Vuelvo a repetirlo. Que salgan inmediatamente del Salón de Plenos.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Se suspende la sesión.

Suspendida la sesión, abandonan el salón de Plenos los concejales correspondientes al Grupo Político Municipal PNV y PP, así como el miembro del Grupo Político Municipal PSE-EE don Juan Angel Gómez Calero.



Gero, barruan jarraitzen zuten ordezkari sindikalak ere Bilkura Aretotik atera dira.

Jarraian, EAJ eta PP udal-taldeetako zinegotziak Bilkura Aretora sartu dira.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Eta Juan Angel?

Jarraian Txaro Sarasua Diaz Bilkura Aretotik atera da. Ondoren, Juan Angel Gomez Calero eta Txaro Sarasua Diaz Bilkura Aretora sartu dira.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Errespetu-falta izugarria iruditzen zait Osoko Bilkuraren esangurarekiko eta gaur gure artean dauden beste auzokideekiko. Batzuetan ezustekoak izaten dira, baina, nire ustez, eskubide bat defendatzeko dotoretasun apur bat behar-beharrezkoa da.

**TXARO SARASUA DIAZ.-** Nire alderdikide den Angelen bila atera naiz. Ez dut zertan jasan inork ergela deitzea eta inork niri errespetua galtzea. Eskubidea dute euren eskubideak aldarrikatzeko, baina horrek ez du esan nahi inori errespetua galtzen ibili behar dutenik.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** Mundu guztiak bere aipamena egin duenez. Guk aspaldian salatu dugu ez zaigula bidezkoa iruditzen Udaletxe honetako langileria pairatzen ari den egoera eta beraien eskubideetan pairatzen ari diren murrizketak. Beraz, hemendik erabili nahi dugu aukera hau beraiekin gure elkartasuna adierazteko.

Baita ere aipatzeko ez dakigu dotorea den ala ez, baina uste dugu era baketsuan aldarrikapen bat aurrera eramateak ez duela inor kaltetzen. Hemen beraien paperean adierazten dutenez, aipatuta dago egin behar zutena, hemendik pasa, paper batzuk eman, kartelak eraman eta delegatuak bertan gelditu ezer oztopatu barik.

Asimismo, posteriormente abandonan el salón de Plenos los representantes sindicales que permanecían en su interior.

A continuación, entran en el Salón de Plenos los concejales de los Grupos Políticos Municipales PNV y PP.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** ¿Juan Ángel?

A continuación, abandona el Salón de Plenos doña Txaro Sarasúa Díaz. Posteriormente, entran en el mismo don Juan Angel Gómez Calero, seguido de doña Txaro Sarasúa Díaz.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Me parece una falta de respeto muy grande a lo que este Pleno significa y al comportamiento de otros vecinos que hoy nos acompañan aquí. A veces, hay cosas que son imprevisibles y me parece que para defender un derecho hay que tener una dosis de elegancia.

**TXARO SARASUA DÍAZ.-** Yo he salido a buscar a mi compañero Ángel y no tengo por que aguantar que me llamen imbécil ni que me falten al respeto. Ellos tienen derecho a reivindicar sus derechos. Se los respeto. Pero no creo que es cuestión de faltarle el respeto a ninguna persona.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** Como todo el mundo ha expresado su opinión, nosotros también queremos manifestar la nuestra. Hace tiempo que venimos denunciando la situación que están sufriendo los trabajadores del Ayuntamiento y los recortes que se les están haciendo en sus derechos. Por lo tanto, queremos aprovechar esta situación, para manifestarles nuestro apoyo.

Por otra parte, queremos añadir, que no sabemos si el modo de la protesta es elegante o no, pero sí que es verdad que una reivindicación pacífica no le hace daño a nadie. En su papel está recogido lo que tenían intención de hacer. Han pasado por aquí repartiendo octavillas y portando carteles, y los delegados se han quedado aquí,



pero sin obstruir nada.

Uste dugu ez dagoela inolako legerik, ez dagoela inolako araudirik debekatzen duenik. Beraz ez gaude batere ados alkateak esandako jarrerarekin. Uste dugu beraien aldarrikapena egiteko eskubide guztia dutela. Askotan aipatu zaigu herri honetan dena era baketsuan egiten den bitartean dena posible dela baina behin eta berriz hori ez dela horrela. Aspaldiko kantua dugu Silvio Rodriguezena, esaten zuena “*la tolerancia es la pasión de los inquisidores*”.

No hay ninguna ley ni norma que prohíba ese comportamiento. Es por eso que no estamos en absoluto de acuerdo con lo manifestado por el alcalde. En nuestra opinión, están en todo su derecho de hacer sus reivindicaciones. Hemos escuchado a menudo que todo es posible siempre que se haga de forma pacífica, pero hemos visto muchas veces que eso no es así. Como decía Silvio Rdriguez en una vieja canción “*la tolerancia es la pasión de los inquisidores*”.

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO.-** Pentsatzen dut alkateak Osoko Bilkurarekin aurrera jarraitu nahiko duela. Osoko Bilkura hasita zegoen, baina bertan behera geratu da. Dena den, zentzuzkoena da ezarritako gai-zerrendarekin jarraitzea. Ezin gara erori batzuek prestatu nahi izan duten amarruan.

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO.-** Me imagino que el Alcalde quiere continuar el Pleno. Quería decir que el Pleno había comenzado, se ha suspendido y lo lógico me parece que continuemos con el Orden del Día, y no nos dejemos llevar por lo que algunos han pretendido.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Erabat ados nago zurekin. Baina egokia iruditu zait gaur hemen bizi izan dugunari buruzko aipamena egitea.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Estoy completamente de acuerdo pero a mí me parecía muy oportuno hacer una referencia a lo que hoy hemos vivido aquí.

Ez da inondik inora ere proposamen baketsua izan. Osoko Bilkura eten nahi izan dute, eta hori onartezina da. Has gaitzen, bada.

No estoy para nada de acuerdo en que ha sido una propuesta pacífica. Se ha venido a paralizar el transcurrir del Pleno, lo que me parece intolerable. Comenzamos.

**Idazkariak bilkura eten denean irakurtzen ari zen idazkiaren puntutik aurrera jarraitu du.**

**La Secretaria continúa leyendo el escrito en el punto en el que ha sido interrumpida la sesión.**

B) DOCTOR FLEMING KALEKO 5 ZENBAKIKO, JOSE ARRUE KALEKO 1 ETA 3 ZENBAKIETAKO ETA VIRGEN DEL CARMEN KALEKO 4 ZENBAKIKO JABEEN ERKIDEGOAK:

B) PROPIETARIOS DE LAS COMUNIDADES DOCTOR FLEMING N° 5, PINTOR JOSE ARRUE N° 1 Y 3 Y VIRGEN DEL CARMEN 4:

*Doctor Fleming kaleko 5 zenbakiko, Jose Arrue kaleko 1 eta 3 zenbakietako eta Virgen del Carmen kaleko 4 zenbakiko jabeen erkidegoek puntu hauek plazaratzen dituzte:*

*En relación con los propietarios de las comunidades de Doctor Fleming n° 5, Pintor José Arrúe n° 1 y 3 y Virgen del Carmen 4 se plantean los siguientes puntos:*

*1.- Lehenik eta behin, Udalak jabeen aitortu dien birlojatze-eskubideari dagokionez, Udalak honako konpromiso OROKOR hauek hartu behar*

*1.- En primer lugar se precisa que, en relación al derecho de realojo que el Ayuntamiento reconoce a los propietarios, dicho*



ditu bere gain:

1.1.- Birlojatze-eskubidearen ondorio gisa, jabeei emango zaizkien etxebizitzak dohainik izango dira, eta ez dute etxebizitza babestuen berezko mugarik izango, hau da, erregimen libreko etxebizitzak izango dira.

1.2.- Birlojatze-eskubidea gauzatzeko etxebizitzek desagertuko diren etxebizitzaren metro erabilgarri berberak, gutxienez, izan beharko dituzte.

2.- Bigarrenik, Udalak konpromiso PARTIKULAR hauek hartu behar ditu bere gain:

2.1.- Birlojatze-eskubidea gauzatzeko, etxebizitza berriak emango zaizkie jabeei. Etxebizitzok Goikoplazan egongo dira, egungo blokea dagoen tokian eraikitzekoa den blokean, hain zuzen. Bloke horrek atari bakarra eta berezkoa izan behar du, Babes Ofizialeko Etxebizitzetatik ongi bereizita, betiere, erkidego osoari izaera libre bermatze aldera. Proposamen hori Udalak berak egindako planteamenduan oinarritutako akordioan jaso da.

2.2.- Birlojatutako jabeek ez dute ezer ordaindu behar birlojatzeagatik (eskriturak, birlojatzeak berak eragindako zergak eta abar). Izan ere, guk ez dugu birlojatzerik eskatu, eta horregatik birlojatzeak ezin die kargarik eragin auzokideei. Ziurrenik auzokide batzuek ezin diote karga horri aurre egin.

2.3.- Lehenbailehen birlojatu behar gaituzte.

2.- Kaltetutako garaje eta lonjen jabeei dagokienez, etxebizitzaren antzeko baldintzak hartu beharko dira kontuan arloari dagokionez. Kasu berezietan, hala nola, negozioetan, ondoko etxebizitzari lotutako garajeetan eta abarretan, birlojatze-aukera alternatiboak negoziatu ahalko dira.

3.- Halaber, Laudioko Udalarari eskatzen diote

Ayuntamiento se comprometa a los siguientes aspectos GENERALES:

1.1.- Que las viviendas puestas a disposición de los propietarios como consecuencia del derecho de realojo se entreguen de forma gratuita y sin sujeción a limitaciones propias de las viviendas protegidas, es decir se entreguen en régimen de vivienda libre.

1.2.- Que los metros útiles de las viviendas donde se materialice el derecho de realojo consten como mínimo de los mismos metros útiles que las viviendas que han de desaparecer.

2.- En segundo lugar se precisa que el Ayuntamiento se comprometa a los siguientes aspectos PARTICULARES:

2.1.- Que, además, dicho derecho de realojo se materialice en la entrega a los propietarios de viviendas de nueva construcción que se han de ubicar en la zona de Goikoplaza en el Bloque que se prevé construir donde se halla sito el actual. Se requiere que dicho bloque posea portal único y propio, ajeno a las viviendas de VPO del bloque, por dar a toda la comunidad en su conjunto el carácter de libre. Dicho planteamiento lo recoge el acuerdo en base a un planteamiento hecho por el propio Ayuntamiento.

2.2.- Que a los propietarios realojados no les suponga ningún tipo de coste dicho realojo. (Escrituras, impuestos exclusivamente derivados del realojo, etc...), consideramos que no hemos pedido ser realojados y no entendemos que dicho realojo tenga que suponer alguna carga que algunos vecinos posiblemente no puedan afrontar.

2.3.- Que el derecho de realojo se materialice en un tiempo lo más corto posible.

2.- En referencia a los propietarios de garajes y lonjas comerciales afectados, se tendrán en cuenta condiciones de área similares a las viviendas. En casos especiales como negocios, garajes vinculados a viviendas cercanas, etc., se podrán negociar posibilidades de realojo alternativas.

3.- Igualmente se solicita al Ayuntamiento de



mozio hau onartuz gero, prentsaurrekoa antolatu dezala, publikoki jakinarazteko hitzartutako gutxienekoen akordioa eta hurrengo legegintzaldiko lehenengo sei hilabeteen barruan konponbide zehatzagoa definitzeko hartu duen konpromisoa. Izan ere, mozio honetan ez dira definitu birlojatzeen alderdi espezifikokoak edo Areta kaleko 4 eta 6 zenbakiei dagokien eraikinaren ingurunean egin beharreko hobekuntzak.

*Horiek guztiak horrela, beraz*

**UDALARI ESKATZEN DIOT:** *Idatzi hau aurkeztutzat jo dezala, eta beharrezko izapide guztiak egin eta gero, gorputzean adierazitakoa bere egin dezala.*

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Agian Alvarok aurkeztu duten idazkiaren gaineko azalpenen bat eman nahi du.

**ALVARO BARRIOS MEDINA.-** Idazkariak idazkia irakurri du dagoeneko, eta, beraz, ez daukat beste ezer esateko. Idazkiaren helburuaren gaineko azalpen bat emango dizuet, ez besterik. Udaleko alderdi politikoekin bildu eta gero, neurri batean, gutxieneko batzuk lotzen saiatu ginen, eta alderdi politiko bakoitzaren jarrera eta berezitasunen arteko akordio bat ahalbidetu.

Helburu horrekin, bada, aurretik ezarrita genituen puntuak murriztu genituen. Dena den, agiri hau ez da behin betikoa, gutxieneko orientatibo batzuen gaineko akordioa da. Etorkezunean behin betiko akordio baterako oinarriak finkatzen lagunduko digu.

Zuekin harremanetan egon naiz, gehienak ezagutzen zaitzuet, eta azken Osoko Bilkura denez, eta ohiz kanpokoa, aukera hau aprobetxatu nahi genuen abiapuntu bat finkatzeko, eta datozenek argi ikusteko kontu honi buruz hitz egin dela dagoeneko.

Konfiantza osoa dugu indar politiko bakoitzak esan digunarekin, baina esandakoa idatziz jaso

*Llodio que si es aprobada esta moción, convoque una rueda de prensa para dar a conocer públicamente el acuerdo de mínimos y el compromiso de definir a una solución más concreta dentro de los primeros seis meses de la siguiente legislatura, ya que en esta moción no se definen los aspectos específicos de los realojos y de las mejoras del entorno de inmueble de Areta 4 y 6.*

*Y expuesto lo que antecede,*

**SOLICITO AL AYUNTAMIENTO.-** *Tenga por presentado este escrito, y previos los trámites oportunos, acuerde conforme dego interesado en el cuerpo del mismo.”*

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** No sé si Álvaro quiere dar alguna explicación del escrito que ha presentado.

**ALVARO BARRIOS MEDINA.-** Como ha leído la Secretaria el escrito no tengo nada más que comentar. Simplemente, desde el punto de vista de cuál era el objetivo y lo que se pretendía, después de las reuniones mantenidas con los diferentes Grupos Políticos del Ayuntamiento, intentamos, de alguna manera, plantear un entorno en el cual hubiera un mínimo posible y un acuerdo entre todas las tendencias y particularidades que plantean los Grupos Políticos.

Con ese objetivo, la reducción de los puntos que teníamos, que tampoco vemos que esta sea la fase definitiva, sino un acuerdo de mínimos orientativos, para que de alguna manera puedan sentarse las bases para un acuerdo definitivo el día de mañana.

Lo que sí queríamos, por parte de esta Corporación, ya que es el último Pleno y extraordinario, y sobre todo porque os he conocido, aunque no a todos, tener un punto de partida para que los que vengan después sepan qué se ha hablado anteriormente.

Confiamos en las palabras de cada una de las fuerzas políticas pero queremos tener algo por



nahi genuen, hitzez adostutakoa berreste aldera. Nolabait esatearren, negoziatzen egon gara, abiapuntu hori oinarri gisa erabili ahal izateko etorkizunean.

Etxe Arrosako bizilagunei kalte mediatikoa egin zaie, publikoa. Horregatik, eskatzen duten gauza bakarra da bi agiri horiek edukitzea, seriotasun eta egonkortasun apur bat ematen dietelako. Jakin badakigu agiri garrantzitsuena eta eraginkorrena Hirigintza Plana dela, baina bi agiri horiek laguntza dira, euren lasaitasunerako bermea.

Bestalde, definizioaren kontuaaren harira, sei hilabeteko epea ezarri dugu. Nolabait esatearren, arazo honen inguruko tentsioari eustea nahi dugu, eta sei hilabete inguru igarota definizioa planteatzen hastea.

Birlojatzeei dagokienez, bi alderdi bereizi ditugu, etorkizunean oinarritzko bi gai planteatzen dituztekeela uste dugulako. Horien harira, beraz, proposamen bateratu moduko bat prestatu nahi genuen. Horixe zen helburua.

Bi alderdi dira: batetik, etxebizitzak librea izan behar duela, guk etxebizitza librea emango dugulako eta, bestetik, gure egungo etxebizitzak dituen metro berberak edukitzea. Hori da, birlojatzearen gainean jartzen ditugun baldintza bakarrak.

Beste alderdi zehatzago batzuk ere badaude. Udalak planteatu ditu, udal-arkitektoaren iritzian oinarrituta, eta beste alderdiekin eta, zehazki, alkatearekin egindako aldez aurreko bileretan ere aipatu dira.

Gainerako puntuei dagokienez, esan behar dugu hainbat asmo jasotzen zirela, baina jakin bagenekien Korporazio hau ezin zela epe zehatz batekin konprometitu. Horregatik, beraz, planteatutako puntuak murriztu ditugu.

Ildo beretik, ondorio edo gogoeta batzuk aurkeztu nahi dizkizuet, eranskin moduan. Ez dut mozioan sartu nahi bete-betean, baina uzten badidazue, testua irakurriko dizuet:

escrito donde se ratifique que se ha comprometido verbalmente. De alguna manera se ha estado negociando para que sobre ese punto de partida sirva para el día de mañana.

Lo único que se pide, por parte de la Casa Rosa, es únicamente, como su daño ha sido un daño mediático, público, tener esos dos documentos que den cierta seriedad y estabilidad a los vecinos, que puede suponer, no únicamente, aunque sabemos de sobra que el mayor documento lo más efectivo es el propio Plan Urbanístico, tener estos documentos es como una ayuda, una garantía, para su tranquilidad.

Por otra parte, esa definición, decimos para que no se cierre en seis meses. De alguna manera se pide que no se baje la tensión que hay sobre esta problemática y que en unos seis meses se empiece a plantear esa definición.

Por otra parte, en cuanto a los realojos, hemos separado dos aspectos porque, de alguna manera, creemos que hay cosas básicas que se pueden plantear el día de mañana y, de alguna manera, algo que tendría que salir de aquí como propuesta unánime. Este es nuestro objetivo.

Solo dos puntos y es que la vivienda sea libre porque nosotros aportamos una vivienda libre y que tengamos tantos metros de vivienda como los metros que tiene nuestra vivienda actual. Es lo único que se pretende respecto del realojo.

Luego hay aspectos particulares que, de hecho, se han planteado desde este Consistorio en base a su Arquitecto Municipal y de reuniones previas con el resto de Corporativos y en particular con el Alcalde.

El resto de los puntos, lo antes posible, pues es un punto de intenciones porque sabemos que no dice nada, pero también sabemos que no podía atarse esta Corporación a ningún plazo determinado. Por eso, esta reducción de puntos planteados.

En ese sentido quiero hacer unas conclusiones, a modo de anexo. No quiero entrar plenamente en la moción. Pero si me permitís, quiero leerlo:





*Berlojatzen elkarteak honako iruzkin hauek egin nahi ditu, arazoak konpontzearen aldeko ekarpen erakitzaileak eta lan proaktiboa oinarri:*

*Auzokideek bizi izan duten prozesuak desgastea eta ziurgabetasuna eragin ditu. Ezin dugu ulertu pertsona batentzako ondasunik sakratuena, hau da, etxebizitza, nola jarri daitekeen arriskuan ekintza partikularrak direla medio. Are gehiago, kontuan hartuta auzokideentzako hain kaltegarriak ez ziren aukerak egon bazaudela. Dena den, aukera horiek aztertu beharrean, albo batera utzi dira.*

*Espero dugu, gutxienez, ahalegina, lana, galera ekonomikoak, ziurgabetasuna, segurtasunik eza, babesgabetasuna eta auzokide guztien DNAn txertatuta geratu diren auzokide guztiak baliagarriak izatea, eta etorkizunean beste herritar batzuek antzeko arazoren bat badute, egindako lana abiapuntutzat hartu ahal izatea eta prozesua arintzen laguntzea. Agiri hau, puntu orokorreari dagokien bezala, beste prozesu batzuetarako oinarri gisa erabil dadin etorkizunean, horra hor gure nahia.*

*Ez dugu errudunik bilatu nahi, baina konponbidea bilatzearen aldeko espiritua lagun, adierazi nahi dugu ez dugula ulertzen nola den posible erabaki tekniko partikularrek (edozein arlotakoek) hainbeste arazo eragitea, batez ere, kontuan hartuta arazo horiek saihesteko modukoak zirela frogatu dela.*

*Adierazi nahi dugu, auzokideentzat, hori dela onartu beharreko gutxienekoa, eta ez dela prozesu hau bi aldeen arteko borroka gisa ulertu behar. Aitzitik, auzokideek berek sortu ez duten arazo batez ari gara. Azkenean, baina, auzokideak dira kaltetuenak. Hortaz, guk egindako ekarpenak aintzat har daitezela eskatzen dugu. Izan ere, mozio hau moraliki nahikoa ez dela badakigun arren, mozio hau onartzearen alde egin dugu.*

*Jakin badakigu arazoaren zati handi bat kontzeptu mediatikoei dagoela lotuta. Mozio hau onartzeak aldarte positiboan hitz egiten hastea dakar. Hori onuragarria da alderdi guztientzat, bai Udalarentzat bai auzokideentzat eta, batez ere*

*Desde Berlojatzen y desde la perspectiva de aportación constructiva y trabajo proactivo en la resolución de la problemática, se quieren poner de manifiesto los siguientes comentarios:*

*Que este proceso por el que han pasado los vecinos, es un proceso de desgaste, incertidumbre y de incomprensión de cómo es posible, que lo más sagrado para una persona, que es su vivienda, sea puesto en riesgo por acciones particulares, más si cabe cuando había alternativas menos gravosas para los vecinos, que pudiéndose haber estudiado no se barajaron.*

*Esperamos que por lo menos, este esfuerzo, trabajo, pérdidas económicas, incertidumbres, inseguridades, desprotección y demás sensaciones que todos los vecinos han incluido en su ADN, sirvan para que en el futuro si otros vecinos tiene una problemática similar, tengan un punto de partida en dicho trabajo para hacerles más liviano el proceso. Y que este documento, por lo menos en los puntos generales, pueda ser en el futuro la base para esos otros procesos.*

*Sin querer entrar a buscar culpables y en un espíritu de búsqueda de una solución, sí que es cierto que no entendemos y así lo queremos poner de manifiesto, el cómo es posible que decisiones técnicas particulares (da igual de que ámbito) causen todas estas problemáticas, más si cabe, como se ha demostrado, cuando se podían haber evitado.*

*Solo queremos dejar constancia que para los vecinos esto es lo mínimo que están dispuestos a acordar y que no se plantee este proceso como una batalla entre dos partes, sino como lo que es una problemática que no ha sido generada por los vecinos, que son los que acaban asumiendo la mayor parte de los perjuicios y que se tenga en consideración las aportaciones hechas por los vecinos, aprobando esta moción que moralmente todos sabemos que es insuficiente.*

*Sabemos que gran parte de la problemática es debida a conceptos mediáticos. Aprobar esta moción, es empezar a hablar en positivo, esto es bueno para todas las partes, Ayuntamiento y vecinos, sobre todo los de Areta 4 y 6, que ese*



*Areta kaleko 4 eta 6 zenbakietan bizi direnentzat. Positibismo hori, beraz, gaurdanik has dadila kaltetutako irudi publikoa aldatzen.*

*Eskerrik asko guztiei (Udalari, hedabideei, auzokideei eta Laudioko herritarrei) gure arazoan aurrean adierazitako interesagatik eta kezkatik. Espero dugu, bada, agiri hau arazo horien amaieraren abiapuntua izatea.*

Eskerrik asko guztiei

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO.-**

Aktan jasota gera dadin, gure taldearen iritzia azalduko dut, Korporazio berria hasten denerako.

Hasteko, tamalez, ez gara gai izan akordio bat lortzeko mozioaren edukiaren gainean. Hala eta guztiz ere, nire ustez, talde politiko guztiak eta auzokideen ordezkariak, oro har, bat gatz edukiarekin. Aurreko astean, gai hau eztabaidatzeko egin genuen bileran, idatziko zen agiria hain esplizitua ez izateko aukera azter zedila planteatu genuen. Gaur irakurritako agiriak, ordea, zehaztapen oso esplizituak jasotzen ditu, baina, oinarrian, aurreko astean eztabaidatu ahal izan genituen konpromiso berberak aipatzen dira.

Kaltetutako eraikinak Plan Nagusian sartzearen aldeko adierazpen politikoren bat egotea nahi genuen. Hau da, Areta kaleko 4 eta 6 atariak hiri-antolamendutik kanpo ez uztea nahi genuen, eta Doctor Fleming, Jose Arrue eta Virgen del Carmen kaleetako bizilagunen birlojatzea justua izango zelaren gaineko konpromisoa bilatzen genuen, hau da, bizilagunek egun dutena baino gutxiago edo gehiago jaso ez zezaten.

Ez da posible izan, eta, hortaz, ulertu behar dugu bizilagunek zehaztapen handiagoa nahi zutela.

Gure ustez, Osoko Bilkura hau ez da Udalak bere gain hartu behar dituen konpromisoak zehazteko tokirik egokiena, are gutxiago ikusita legegintzaldia amaitzeaz dagoela. Bestalde, esan genizuen oraingo zinegotzi gehienak ez direla

*positivismo, empiece desde hoy a cambiar su perjudicada imagen pública.*

*Gracias a todos (Ayuntamiento, medios, vecinos y ciudadanos de Llodio) por el interés y preocupación mostrado por la problemática y esperamos que este documento sea el principio del fin de dicha problemática.*

Muchas gracias a todos.

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO.-**

A efectos de que conste en acta, voy a dar cuál es nuestra posición para cuando está la nueva Corporación.

En primer lugar, lamentar que no haya sido posible llegar a una acuerdo en torno al contenido de la moción, a pesar de que, en líneas generales, estamos de acuerdo creo, todos los Grupos Políticos y también los representantes de los vecinos. Es cierto que la semana pasada, cuando tuvimos una reunión para tratar este asunto, se os transmitió la posibilidad de redactar un escrito en el que las concreciones no fueran tan explícitas como se detalla en el documento que se ha presentado hoy y que, básicamente, refleja los mismos compromisos que el que tuvimos la oportunidad de debatir la semana pasada.

A nosotros nos hubiera gustado que se diera alguna expresión política de respaldo a mantener en el Plan General, es decir, que no se calificaran como fuera de ordenación los números 4 y 6 de la Calle Areta, y que hubiera un compromiso de que el realojo de Doctor Fleming, José Arrúe y Virgen del Carmen, fuera un realojo justo, es decir, que nadie tuviera ni menos ni más de lo que tiene ahora.

No ha sido posible, por lo que entendemos que por parte de los vecinos se quería obtener un mayor grado de concreción.

Pensamos que este momento, y este Pleno, no es el lugar adecuado para detallar de esa manera tan pormenorizada cuáles deben de ser los compromisos del Ayuntamiento, y menos en este momento en el que se acaba la legislatura.



egongo hurrengo Korporazioan.

Berretsi nahi dut Alderdi Popularraren konpromisoa dela eraikina antolamenduaren barruan uztea eta birlojatze justu baten alde egitea. Hala eta guztiz ere, aurkeztu duzuen testuaren zehaztapena handiegia da, eta horregatik ezin dugu haren alde bozkatu.

**TXARO SARASUA DIAZ.-** Hainbat bilera egin ditugu Udalean Berlojatzen elkarteke bozeramailearekin. Guretzat testutik kentzekoak ziren puntu batzuk murriztu egin direla ikusi dugu.

Mozioan bi zati daude, ongi bereziak. Bata Etxe Arrosa deritzonari buruzkoa da, eta bestea etorkizunean egin daitezkeen birlojatzeei buruzkoa.

Bat gatzoz Etxe Arrosari dagokion zatiarekin. Bigarren zatiari dagokionez, berriz, ados gaude arazo orokorrekin, baina zehatzak eztabaidatu beharko liratekeela uste dugu.

2010eko martxoaren 28an udal-administrazioek egiten dituzten birlojatzeei buruzko agindu bat onartu zen. Desjabetzeko ez diren jarduketa isolatuaren ondoriozko birlojatzeei buruzkoa da. Agindu horren 4. artikuluan, desjabetzekoak ez diren jarduketa isolatuetan birlojatze-eskubidea arautzen da, eta azaltzen ari naizena gauzatu ahal izateko betekizunak ezartzen ditu.

Horiek horrela, gure taldeak, printzipioz, ez du mozioaren aurka bozkatuko. Argi dugu, dena den, etorkizunean egon daitezkeen debateetan, punturen batzuk Udalarekin adostu beharko den hitzarmenari lotu beharko zaizkiola. Eta ea Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, ere laguntzen digun.

Beti egongo gara auzokideak ez kaltetzearen alde, haiek ez baitute birlojatzea eragin, baina, betiere, indarrean dagoen legedia errespetatuz.

Eskerrik asko zuen heziera onagatik eta

También se os dijo que la mayoría de los concejales que estamos aquí probablemente no estemos en la próxima Corporación.

Reitero que el compromiso del Partido Popular es mantener el edificio dentro de ordenación y que el realojo sea justo, pero el grado de detalle no nos permite votar a favor del texto que habéis presentado.

**TXARO SARASUA DÍAZ.-** En todo momento hemos tenido reuniones en el Ayuntamiento con el portavoz de Berlojatzen y, en algunos puntos que veíamos que había que retirar, hemos visto que se ha reducido.

Hay dos partes bien diferenciadas en la moción. Una que concierne a la llamada Casa Rosa y la otra, a los futuros realojos que puedan darse.

En lo que se refiere a la Casa Rosa, compartimos lo propuesto, pero, en lo que se refiere a lo segundo, si es cierto que con los problemas generales nos mostramos de acuerdo, pero con los particulares sería cuestión de debate.

El 28 de marzo de 2010, se aprobó una Orden sobre realojos derivados de actuaciones aisladas, no expropiatorias, realizadas por las administraciones municipales. En el artículo 4, el que regula el derecho de realojo en actuaciones aisladas no expropiatorias, se marcan unos requisitos en los que se recoge lo que estoy trasladando.

Por lo tanto, en principio, nosotros no nos vamos a oponer a la moción pero es claro que, en un posterior debate, habrá puntos que habrá que sujetar a ese convenio que se establezca entre el Ayuntamiento y si puede ser, el cable que nos pueda echar el Gobierno Vasco.

Siempre estaremos a favor de que los vecinos no salgan perjudicados porque ellos no son los que provocan el realojo, pero esto, respetando la legalidad vigente.

Gracias por vuestra educación y vuestro saber



izandako jarrera egokiagatik. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** Gure bozka aldekoa izango da.

Esan nahi dugu araudiarekin zenbait puntuetan, ez esatearren, ezadostasunak ditugunik baina bai zalantzak. Izan daiteke Berlojatzten Goikoplaza izatearen kontuarekin. Hori da Gobernu Taldearekin negoziatutako gauza bat. Beraz, ez dakigu edo ez dugu gaitasunik jakiteko hori aukerarik onena den edo ez. Ez diogu hori ez izan behar ez denik, baina ez dakigu aukerarik onena den ala ez.

Gure kezka azaldu nahi dugu. Berlojatzte hauekin babes ofizialeko etxebizitzak galdu egiten direlako planteatutako eran. Nahi genuke hori horrela izango balitz, bertan galtzen diren babes ofizialeko etxebizitza horiek, beste nonbaiten berreskuratzea.

Horregatik esan zalantza batzuk ditugula mozioarekin baina, orokorrean, bat gatoz bere espirituarekin. Badakigu zergatik aurkezten den, auzokideekin bildu garelako. Badakigu zeintzuk diren beraien nahiak eta kezkak eta, esan bezala, babes morala emateagatik eta beraiekin ados gaudela jakinda baietz esango dugu.

Aipatzea, baita ere, gure asmoa zela mozio orokorrako bat lortzea. Esaten dugunean orokorra ez dugu esan nahi eskuak garbitu nahi ditugunik. Ez du esan nahi zehatza izan behar ez duenik. Esan nahi genuena da onartutakoa egoera berdinean dauden guztien egoera eta etorkizunean egoera horretan egon daitekeen edonoren egoerari konponbidea eman beharko litzaiokeela.

Guk proposatzen genuen araudi bat onartzea Udaletxean egoera horretan aurkitzen direnak eta ikusiko direnak ondo atera daitezten. Badakigu beti dagoela kaltetua izaten dela pertsona bat. Behintzat gutxitzeko sortzen diren kalte ekonomiko, babes gabeko sentazio hori eta epeak murriztu nahian. Horregatik planteatzen genuen epe bat, araudi bat, plan bat udaletxearen

estar. Iremos viendo lo que va pasando.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** Vamos a votar a favor.

Queremos decir que respecto a algunos puntos de la normativa no es que no estemos de acuerdo, pero sí que tenemos algunas dudas. Por ejemplo, en cuanto a que el realojo deba hacerse en Goikoplaza. Es un aspecto negociado con el Equipo de Gobierno, por lo tanto, no tenemos capacidad para afirmar si esa es la mejor opción. No decimos que el realojo no se deba hacer allí, sino que no sabemos si se trata de la mejor opción.

Queremos mostrar nuestra preocupación, ya que los realojos están planteados de tal modo que hacen que se pierdan viviendas de VPO. Por lo tanto, nos gustaría que las VPO que se pierden se puedan recuperar en alguna otra promoción.

Insistimos en que tenemos alguna duda respecto a la moción pero que en líneas generales estamos de acuerdo con el espíritu del texto. Conocemos el motivo por el que lo han presentado, ya que nos hemos reunido con los vecinos. Nos han trasladado sus deseos y sus preocupaciones, y como estamos de acuerdo con ellos y queremos expresarles nuestro apoyo moral, votaremos a favor.

Queremos añadir, a su vez, que nuestra intención era consensuar una moción más general, y cuando decimos general no es para lavarnos las manos, y no queremos decir que no deba ser concreta. Lo que decimos es que se podía haber buscado una solución para todos los vecinos que se encuentran en la misma situación o que puedan sufrirla en el futuro.

Proponíamos la aprobación de una normativa para todos los vecinos del municipio que se encuentran en la misma situación o que puedan sufrirla en el futuro. Sabemos que siempre hay algún afectado. Por lo tanto, se trataba de paliar el daño económico y la sensación de desprotección y de acortar los plazos. Por eso planteábamos la posibilidad de que el Ayuntamiento estableciese



partetik auzokideei aurkezteko eta behin plan hori onartuta, sartuko lirateke beraien egoera negoziaketan.

Hori zen gure proposamena. Uste dugu gaurtik aurrera aukera izango dela negoziatzeko eta ikusteko. Momentuz, baietz esango diogu mozio honi.

*Normalean ez dugu gaztelaniaz hitz egiten, baina hemen dauden kaltetutako bizilagunek entzungailurik ez dutela ikusita, gure iritzia gaztelaniaz azalduko dut.*

*Mozio honen alde bozkatuko dugu. Ez gaude ados puntu guztiekin. Dena den, zalantza batzuk ditugu, batez ere birlojatzeak Goikoplazan egiteari dagokionez. Hori Gobernu Taldearekin negoziatu zen, baina ez gaude ziur hori ote den aukerarik egokiena. Ez dugu esaten ez denik han egin behar, baina guk ez dakigu beste aukeraren bat planteatu den ala ez.*

*Birlojatzeak egiteko baliatuko diren etxebizitza guztiak, hasiera batean, babes ofizialekoak ziren, eta horrek kezkatzen gaitu. Izan ere, modu horretan, babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza murrizten ari da.*

*Gustatuko litzaiguke, beraz, orain kenduko diren babes ofizialeko etxebizitzak etorkizunean berreskuratuta ahal izatea udalerriko beste etxebizitza-sustapen batzuetan.*

*Esan bezala, alde bozkatuko dugu, bat egiten dugulako bizilagunen kezkaekin eta mozioaren bidez lortu eta bultzatu nahi dutenarekin.*

*Guk ere mozioa orokorragoa izatea planteatu genuen, eta orokorragoa diogunean, ez dugu esaten eskuak garbitzeko. Ikuspegi orokorragoa nahi genuen, hain zuzen, herriko beste etxe batzuk ere hiri-antolamendutik kanpo daudelako, eta mozioaren bidez, beraz, etorkizunean egoera horretan egon litezkeen etxe guztiei konponbidea emateko aukera egon zitekeela uste genuen. Uste dugu araudi bat egin behar dela, etorkizuneko birlojatzeak ahalik eta kalterik txikiena eragin dezaten epeen eta segurtasunik ezaren aldetik. Behin araudi hori onartuta, gai zehatzei heltzeko negoziazioei ekin ahalko zaie.*

un plazo, una normativa o un plan para luego presentárselo a los vecinos, y a partir de entonces entrar en las negociaciones.

Esa era nuestra propuesta. Pensamos que a partir de hoy se va a poder negociar y ver como van transcurriendo los acontecimientos. Pero, de momento, vamos a votar a favor de la moción.

*Normalmente no solemos hablar en castellano pero visto que los vecinos afectados que han venido no tienen auriculares, voy a explicar nuestra posición.*

*Vamos a votar que sí a esta moción. No es que no estemos de acuerdo en todos los puntos pero sí que tenemos algunas dudas, sobre todo con los realojos en Goikoplaza porque es algo que se negoció con el Equipo de Gobierno y no sabemos si es la mejor opción o no. No decimos que no tenga que ser allí, pero nosotros no sabemos que otras opciones se podrían barajar.*

**LEHENA.-** Onartzea **BASABIDEAK LAUDIO** logoa sortzea (1. PROPOSAMENA), folioko ezker aldeko bazterrean gaztainorriak errepresentatuta, berde kolorekoa, eta aldi berean honek bere goiko aldeko erdi-aldean **BASABIDEAK** hitza sartuz, letra larriz eta berde kolorez, eta beheago, erdi-aldera, aurreko hitzarekiko paraleloan **LAUDIO**, letra larriz eta beltzez eta **LAUDIO**ko “O”aren barruan hiri marka txertatuta eta sartuta doa.

Logo horrekin kultura-, paisaia- eta natura-intereseko basabidearen kalitatezko marka bat sortuko genuke, komunikazio ez-berbaleko elementua eta gure baso eta mendietatik paseatzeko era berri bat, interesgarriagoa eta hezigarriagoa eskainita.

Logo horrek adieraziko lieke bidelagunei zein bideren ibilia ari den egiten eta zein den seinalizazioaren sistematika.

**BIGARRENA.-** Onartzea **BASABIDEAK LAUDIO** logoaren inskripzioa egitea, izan ere gure landa ingurunekeo basabideetako ibilbideetan aurkituko dugun elementu bakoitzeko kartel deskribatzaileetan agertuko baita.

**HIRUGARRENA.-** Sortzea udalaren web atarian “**BASABIDEAK LAUDIO**” izeneko atala eta selekzionatutako logoak errepresentatuta. Bertara igo eta eskegi ahal izango dira track-ak (ibilbideak), berreskuratutako bide bakoitzeko GPSa eta ezaugarrien aipamen laburra, hala nola interesgarri suerta daitekeen beste informazioa.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Udaletxeko Arloei eta AIARATUR bulegoari.

**Bozkatuta, onartu da aho batez eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

**Alde: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3), PP (2) eta Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao eta Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kideak.**

**PRIMERO.-** Proceder a la aprobación de la creación del logo **BASABIDEAK LAUDIO** , (PROPUESTA nº 1), representado la hoja de castaño en el lateral izquierdo del folio , de color verde, y abarcando esta a su vez arriba en el centro la palabra **BASABIDEAK** , en mayúsculas y color verde, y abajo en el centro paralela a la palabra anterior **LAUDIO**, en mayúsculas y negrita y dentro de la “O” de **LAUDIO** va incluida la marca ciudad.

Con este logo crearíamos una marca de calidad de sendero de interés cultural, paisajístico y natural, constituyendo un elemento de comunicación no-verbal y una nueva forma de pasear por nuestros montes, más interesante y formativa.

Este logo indicará a los caminantes el tipo de camino que esta recorriendo y cuál es la sistemática de señalización.

**SEGUNDO.-** Proceder a la aprobación para la inscripción del Logo **BASABIDEAK LAUDIO** que aparecerá en los carteles descriptivos de cada uno de los elementos que encontraremos en el recorrido de los caminos de nuestro entorno rural

**TERCERO.-** Proceder a la creación en la web municipal un apartado denominado “**BASABIDEAK LAUDIO**” y representado por el logo seleccionado donde se puedan colgar los tracks GPS de cada ruta recuperada y una breve reseña de las características de la misma , así como otra información que pudieses resultar de interés.

**CUARTO.-** Dar cuenta del presente acuerdo a las Áreas de este Ayuntamiento y a AIARATUR.

**Sometida a votación, es aprobada por unanimidad, con el siguiente resultado:**

**A favor: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3), PP (2) y Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao y Josu Zabala Atxa, Miembros No Adscritos.**



**42.- TERRAZAK ETA BELADOREAK INSTALATZEKO TOKIKO ORDENANTZAREN ALDAKETA.- ALKATE LEHENDAKARITZAREN PROPOSAMENA, HIRIGINTZA ETA INGURUGIRO ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARI LAGUNTZAILEAREN BITARTEZ, AURRETIKO OSOKO BILKURARAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENAZ.- ONARTUA.**

Udal honek 04-06-28ko osoko bilkuran erabaki zuen onartzea behin betiko Terraza eta Beilatoki Instalazioen gaineko Udal Ordenantza, 2004-07-17ko 82 zk. duen ALHAOn argitaratu zen testuaren arabera, gaur egun indarrean dagoela.

Hiritarren ohitura aldaketen eta horrekin ostalaritza establezimenduetako erabiltzaileen eskarien ondorioz, iaz sektoreak helarazi digu ordenantza honetako aspektu batzuk aldatu beharra. *Abenduaren 30eko 42/2010 Legea indarrean sartu zenetik, zeinen bidez aldarazi zen abenduaren 26ko 28/2008 Legea, tabakismoari aurre egiteko osasun neurriei buruzkoa eta tabakorrioaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea erregulatzeari buruzko, salmenta arautzeari buruzkoa, erreklamazio horrek indarra hartu du irizteagatik indarrean dagoen testua ez datorrela bat ostalaritzako errealitatearekin ez eta aipatu den Legea indarrean sartzearen ondoriozko beharrezanetara.*

Eskari horren aurrean, Alkatetza-Lehendakaritzak hainbat bilera egin ditu udalerriko ostalaritzako ordezkariekin. Horietan erabaki zen aldatzea indarrean dagoen testua txertatzeko baimenen indar aldiarekin zerikusia duten aldaketak, terraza instalatzeko eskubidea zabaltzea ostalaritza establezimendu guztietara, bakoitzari dagokion taldeaz landa, eta erregulatzeko tabakorrioaren aurkako legean indarrean sartzearen ondorioz legez sortutako altzari elementu berriak.

Hirigintza eta Ingurumen Arloko Zinegotzi Ordezkarri Laguntzaile bidez, ikusirik 2011-05-09 egunean izaniko Osoko gaitako Informazio Batzordean hartutako irizpena, Alkateak proposatuta, Udalbatzarraren Osokoak erabaki du:

**42.- MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA LOCAL SOBRE INSTALACIONES DE TERRAZAS Y VELADORES.- PROPUESTA DE LA ALCALDÍA PRESIDENCIA, A TRAVÉS DE LA CONCEJALÍA DELEGADA ADJUNTA AL ÁREA DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE, PREVIO DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ASUNTOS DE PLENO.- APROBADA.**

En sesión plenaria de 28-06-04 este Ayuntamiento decidió aprobar definitivamente la Ordenanza Local sobre Instalaciones de Terrazas y Veladores según texto que figura publicado en el BOTHA nº82 de 19 de julio de 2004, encontrándose vigente en la actualidad.

Como consecuencia de los cambios de hábito de la ciudadanía y con ello de las demandas de los usuarios de los establecimientos hosteleros, en el último año el sector ha transmitido la necesidad de modificar algunos aspectos de esta ordenanza. Con la entrada en vigor de la *Ley 42/2010, de 30 de diciembre, por la que se modifica la Ley 28/2005, de 26 de diciembre, de medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco*, esta reclamación se ha visto reforzada por considerar que el texto vigente no se ajusta a la realidad actual de la hostelería ni a las necesidades derivadas de la entrada en vigor de la citada Ley.

Ante esta demanda, la Alcaldía-Presidencia ha mantenido varias reuniones con representantes de la hostelería del municipio, durante las cuales se acordó modificar el texto vigente para incorporar cambios relacionados con el periodo de vigencia de las autorizaciones, ampliar el derecho de instalación de terraza a todos los establecimientos hosteleros, al margen del grupo al que pertenezcan, y regular los nuevos elementos de mobiliario surgidos como consecuencia de la entrada en vigor de la Ley antitabaco.

A propuesta de la Alcaldía, a través del Concejal Delegado Adjunto del Área de Urbanismo y Medio Ambiente, una vez visto el dictamen adoptado por la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno en reunión celebrada el 9 de mayo de 2011, el Ayuntamiento en Pleno



acuerda:

**LEHENA.-** Ematea hasierako onarpena Terraza eta Beilatoki Instalazioen Herriko Ordenantzaren aldatetari, espedienteen jasota dagoena 2011-05-03ko datadun testu bateginaren arabera, eta oinarrituta dagoena ondorengo zehaztasunotan:

Erregulatzeko abenduaren 30eko 42/2010 Legea indarrean sartzearen ondorioz sortutako altzarizko elementuen instalazioa, hala nola, upelak, apalak, mahai altuak, e.a. (Aldatzea artikulua hauek: 1.2 eta 14.2).

Baimentzea terrazak ipintzea Ostalaritza Establezimenduen Kokapenerako Udaltzako II. eta III. taldeko ostalariei (3.1 artikulua ezabatzea).

Kentzea espaloiko gutxieneko zabalera 2,90 m izateko exigentzia (3.2. artikulua aldatzea).

Baimenen gehieneko indar aldiaren epea aldatzea (16.1 eta 16.3 artikulua aldatzea).

Ostalaritza Establezimenduen Kokapenerako Udaltzako II. eta III. taldekoak diren establezimenduetarako terrazan funtzionamendu ordutegia ezartzea (18.1 artikulua aldatzea.).

Txertatzea fatxadari lotutako lerrokatutako instalazioak ipintzeko aukera (5 artikuluko b) puntua aldatzea).

**BIGARRENA.-** Ipintzea espedienteen jende aurreko informazio publikoko tramitean eta interesdunei entzun aldia eskaintzeko 30 laneguneko epean, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezken, eta horiek Udaltzaren osoko bilkura honek ebaztzeko dituen behin betiko onarpen erabakian.

Adieraztea inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez bada, Ordenantza aldatzeko onarpen erabakia behin betiko onartutzat joko

**PRIMERO.-** Otorgar aprobación inicial a la modificación de la Ordenanza Local sobre Instalaciones de Terrazas y Veladores, de acuerdo con el texto refundido fechado en 03-05-11 que obra en el expediente, y consistente en los siguientes extremos:

Regular la instalación de los elementos de mobiliario surgidos como consecuencia de la entrada en vigor de la Ley 42/2010, de 30 de diciembre, como barriles, repisas, mesas altas, etc. (modificación del artículo 1.2 y 14.2).

Permitir la instalación de terrazas a los establecimientos hosteleros del grupo II y III de la Ordenanza Municipal para la Ubicación de Establecimientos de Hostelería (eliminación del artículo 3.1).

Eliminar la exigencia de 2,90 m de anchura mínima de acera (modificación del artículo 3.2).

Modificar el periodo máximo de vigencia de las autorizaciones (modificación del artículo 16.1 y 16.3).

Establecer el horario de funcionamiento de las terrazas, para los establecimientos pertenecientes al grupo II y III de la Ordenanza Municipal para la Ubicación de Establecimientos de Hostelería (modificación del artículo 18.1).

Incorporar la posibilidad de colocar las instalaciones alineadas contra la fachada (modificación del artículo 5 punto b).

**SEGUNDO.-** Someter el expediente de modificación al trámite de información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días hábiles, a contar desde el siguiente al de publicación del correspondiente anuncio en el B.O.T.H.A., para presentación de reclamaciones y sugerencias que serán resueltas por este Ayuntamiento en el acuerdo de aprobación definitiva.

Señalar que en el caso de que no se hubiera presentado en plazo ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación de la



dela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 45 artikuluan xedatuta dakarrenekin bat.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau jakinarazi harremanetan dauden Udal Arlo eta Zerbitzuei, hala nola Laudioko Industriari Txikien Elkarteari (APILLi).

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** Beste egunean Batzorde Informatiboan APILLek beraien kezka agertu zituzten.

Horietako bat zen ea lotuta joan daitekeen montatutakoa lurrera edo ez, eta bestea, ordutegiarena, hau da Pub eta Tabernen arteko ezberdintasuna. Honek bere horretan jarraitzen du?

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Bi alderdi zeuden. Bata ainguraketa da. Batzordearen bileran esan nuen ainguraketak debekatuta zedela, baina, gero, Juan Jose Unzagak zuzendu ninduen, eta esan zidan toki batzuetan baimenduta daudela, betiere, lur-azpian zer dagoen gorabehera.

Beste alderdia ordutegiena da. Ordenantzan bi ordutegi ezarri dira, bata taberna gisa sailkatutako establezimenduentzat eta bestea disko bar edo pub gisa sailkatutakoentzat. Azken horien kasuan, gaueko 10etara arte mugatu da.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** Uste dugu herri honek terrazan ordenantza bat baino beharko lukeena dela espazio publikoaren erabilpena arautuko duen ordenantza. Ikusi dugu herri honetan gero eta gehiago merkataritza sektorean ez direla terrazak bakarrik. Hor ditugu Zumalakarregi kalean bai hormigonarak bai umeentzako tramankuluak, beste aldean fruta kalean eta hainbat eta hainbat gauza.

Halako kontuak gero eta gehiago suertatzen dira. Horregatik uste dugu herri honetan behar dena dela espazio publikoa arautuko duen

modificación de la Ordenanza, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**TERCERO.-** Disponer la comunicación del presente acuerdo a las Áreas y Servicios Municipales relacionados, así como a la Asociación de Pequeños Industriales de Llodio (APILL).

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** El otro día, en la Comisión Informativa, los representantes de APILL nos trasladaron sus dudas.

Una de ellas se refería a si el montaje de la terraza puede ir anclado al suelo o no, y la otra era sobre el horario, es decir, sobre la diferencia entre pubs y bares. ¿Esa diferencia se mantiene?

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Había dos cuestiones. Una, referente a los anclajes que en la Comisión dije que no se permitían y luego Juan José Unzaga me corrigió comentando que en algunos sitios sí que está permitido en función de lo que hay en el subsuelo.

El otro aspecto es el referido a los horarios. En la Ordenanza se estipulan dos horarios, uno para los que tienen la calificación de Bar y otros para los que tienen calificación de Disco-Bar o Pub, que se limita a las 10.

**GAIZKA AMORROTU BOVEDA.-** Creemos que este pueblo más que una ordenanza sobre terrazas, necesitaría una ordenanza para regular el uso del espacio público. Vemos que en este pueblo, el sector del comercio cada vez hace más uso del espacio público, no estamos hablando sólo de terrazas. Ahí tenemos las hormigoneras y los aparatos para los niños de la calle Zumalakarregi, y al otro lado puestos de fruta en la calle y otras muchas cosas.

Cada vez surgen más cosas de este tipo, y por eso pensamos que lo que este pueblo necesita es una ordenanza que regule el uso del espacio



ordenantza bat. Hor dugu ere Elizako aterpean kofradia dela eta, izan ditugun hika mikak.

Esan nahi dugu gure ustez, edozein kasutan, kaleari dagokionean oinezkoek eta pertsona bizilagunek izan behar dutela erabateko lehenasuna. Uste dugu herria oinezkoena, pertsonena dela eta ez tabernariena hauek herriaren parte handia baldin bada ere.

Beste egunean, Batzordean, Jon Karla esan zuen, eta berarekin ados nago, hobe dela arategi zorrotz eta murriztaile bat izatea eta gero araudi hori era malgu batean aplikatzea kontrakoa baino. Horrekin ados gaude, iritzi berekoak gara, baina uste dugu, aldiz, proposatu zaigun araudi hau ez dela zorrotza gure ustez, eta aldiz, nahiko malgua edo inespezifikoa dela.

Puntu zehatzei dagokienean uste dugu, erdaraz dago araudia, dio "*desarrollo longitudinal*", eta guk, gure herria ezagututa, uste dugu hamabi metrotako terraza bat astakeria iruditzen zaigula. Ez dakigu inork montatu nahi duen baina uste dugu aukera ematen dela eta uste dugu gehiegizkoa dela.

Esaten da pasabideak izan behar direla lekuen arabera 2, 3 edo plaza eta espazio publikoetan 4 metrotakoak. Guk herrian ikusten ditugun kasuak ikusita, adibidez, Pio XII kalea, uste dugu oso gutxi dela. Hortik ibili gara eta uste dugu benetan oinezkoentzako oso leku gutxi geratzen dela. Batez ere, burura etortzen zaigu, une zehatzak, asteburuak, jaiak, jendea pilatzen dela kale horretan eta azkenaldian Gorka eta Ilargi tabernek ez dituzte terrazak ipini baina jarriko balituzte, badakigu zer gertatzen den asteburuetan hor, batez ere eguraldi ona egiten baldin badu.

Gainera uste dugu behar bada gaur ez dela kasua, baina jartzen da, adibidez, oinezkoentzako kaleetan 3 metrotako pasabidea utzi behar dela. Uste dugu hau gutxi dela baina baita ere aldatuko genuke proportzio batengatik. Esan nahi dugu, gaur egun, uste dut, 9 metro edo 10 izan ditzake Pio XIIak, zer geldituko lirateke terrazentzako eta

público. Sirva también como ejemplo el pórtico de la iglesia, y los problemas que ha habido con la cofradía.

Queremos expresar, que en nuestra opinión, los peatones y los vecinos son los que en cualquier caso tienen la prioridad absoluta. Creemos que el pueblo es de los peatones, de las personas, y no de los hosteleros, aunque ellos representen una parte importante de nuestro municipio.

El otro día, en la Comisión, Jon Karla dijo que es preferible adoptar una normativa rigurosa y limitada y luego poder aplicarla de una forma más laxa, yo estoy de acuerdo con él. Compartimos su planteamiento, tenemos la misma opinión. Sin embargo, la normativa que se ha propuesto no es rigurosa. Más bien, se trata de una normativa laxa y en absoluto específica.

Respecto a los puntos concretos, se habla de "*desarrollo longitudinal*". A nosotros, conociendo el pueblo como lo conocemos, eso nos parece una burrada. No sabemos si alguien va a montar una terraza de ese tamaño, pero la normativa contempla esa posibilidad, y a nosotros nos parece una exageración.

Se dice, que los lugares de paso deben ser de 2 o 3 metros, dependiendo del sitio, y que en las plazas y espacios públicos deben tener 4 metros. Analizando casos concretos que nosotros vemos en el pueblo, por ejemplo, en el caso de la calle Pío XII pensamos que esa distancia no es suficiente. Hemos andado por allí, y la verdad es que queda muy poco espacio para los peatones, sobre todo, me vienen a la cabeza momentos concretos como fines de semana, fiestas... La gente se apela en esa calle. Últimamente los bares Gorka e Ilargi no han puesto terrazas, pero ¿qué pasaría si las pusiesen? Ya sabemos lo que ocurre allí los fines de semana, sobre todo si el tiempo acompaña.

Se dice que en las calles peatonales se debe dejar un pasillo de 3 metros. En nuestra opinión, es poco, pero pensamos que debería adaptarse según la anchura de la calle. Por ejemplo, hoy en día creo que la calle Pío XII tendrá unos 9 o 10 metros. Si le quitamos 3 metros de pasillo para peatones, lo que queda para terraza es poco. Sin



3 oinezkoentzako, gutxi iruditzen zaigu, baina kalea 25 metrotakoa balitz 3 metro pasatzeko geldituko lirateke eta 22 terrazentzako.

Uste dugu horretan zehaztapan bat sartu beharko litzatekeela, eta hau gelditu litzatekeela proportzioetan ehunekoetan jartzea halakoak gerta ez daitezten.

Baita ere kezka ditugu bidegorriekin. Herrian ditugun sasi bidegorri horiek arazoak sortu ditzaketen terrazekin, batez ere Zumalakarregi aldea aipatzen denean. Badakigu Bonaire edo bezalako tabernetan arazorik ez dagoela bidegorriarik ez dagoelako, baina aipatzen denean espaloien aldean jarri behar dela terraza bidegorria tartean izanda, beste aldeko tabernek zailtasunak izango dituztela.

Terraza gutxi beharko dituztela 30 zentimetro bakoitzetik irteteko aukera emateko. Ez dakit baina 30 zentimetroekin nora atera daitekeen. Uste dugu ematen duela zerbait jartzeagatik jarri dela, baina ez duela ezer konpontzen.

Uste dugu ez daudela zehaztuak, adibidez, 6. puntuan jartzen du "con carácter provisional fácilmente desmontables en caso de estar en la acera". Puntu honetan ez da zehazten zer jarri daitekeen, zer motatako tramankulua jarri daitekeen. Gauzak ez direnean zehazten, beti geratzen da pertsona bati iruditzen zaionaren arabera.

7. puntuan jartzen du "*cuando resulte formalmente inadecuado y discordante con su entorno*", hau zer da, eta nork erabakitzen du?

Gauza hau pertsona baten eskuetan geratzen baldin bada ez dit inongo garantiarik ematen.

Guzti honengatik uste dugu malguedia dela. Batez ere, kasu konkretu batzuetan ez dela konponbidea ematen eta ez dakigula zer gertatuko den araudi honekin. Pio XII kalearekin ez dakigu zer gertatuko den. Alberto Acero eta atzeko inguru horretan espaloi oso txikiak dituen inguru horrekin ere, araudi honek ez du ezer konpontzen. Ez dakigu zer gertatuko den.

embargo, si la calle midiese 25 metros, quedarían 3 metros para pasar y 22 para terrazas.

Pensamos, por lo tanto, que en ese aspecto debería incluirse una concreción, e incluir que ese pasillo debería establecerse en proporción de la calle, y que debería representarse en tanto por cientos.

También tenemos nuestras dudas respecto a los bidegorris. Esos pseudo bidegorris que tenemos en el pueblo pueden crear problemas a las terrazas. Por ejemplo, en Zumalakarregi, en el Bonaire y demás no hay ningún problema porque allí no hay bidegorri, pero se dice que la terraza debe instalarse en el borde de la acera, y, por lo tanto, los bares de la otra parte de la calle pueden tener problemas.

Se dispone que se instalarán, con un mínimo de 30 centímetros, para no entorpecer la salida. No sé, pero creo que con una distancia de 30 centímetros no se puede salir de ningún sitio. Nos parece que se ha puesto esa cifra por poner algo, pero que no arregla nada.

Creemos que falta concreción. Por ejemplo, en el punto 6 dice "con carácter provisional fácilmente desmontables en caso de estar en la acera". En dicho punto no se concreta que se puede poner, que clase de soporte se puede instalar. Cuando las cosas no se concretan, al final cada uno le da su propia interpretación.

En el punto 7 dice "*cuando resulte formalmente inadecuado y discordante con su entorno*". ¿A qué se refiere? ¿Quién toma la decisión?

Si todos los aspectos dependen de la opinión de una persona, eso no da ninguna garantía.

Por todo lo explicado anteriormente, creemos que es demasiado laxa. Sobre todo, en determinados aspectos, no se da ninguna solución y no sabemos lo que va a pasar con esta normativa. Por ejemplo, en el caso de la calle Pío XII, no sabemos lo que va a ocurrir. En Alberto Acero y en toda esa zona, donde las aceras son muy pequeñas, la normativa no aporta ninguna



solución. Desconocemos lo que ocurrirá.

Horregatik, ez dugu aurka bozkatuko, badakigulako zeintzuk diren tabernarien beharrak eta arazoak eta konponbide bat behar dutela onartzen dugulako, baina uste dugu honek ez duela ezer konpontzen eta ez dela aproposa. Baita ere, gure kezka azaldu terrazaren kontuarekin. Suposatzen dut beste taldeek ere arazo berberak dituztela. Ziurrenik hemendik gutxira, zoritzarrez asko ez gara egongo hurrengo legegintzaldian. Ziurrenik arazoak izango dituztela kaleko zaratarekin, kearekin eta terrazaren erabilpenak sortzen dituen arazoekin.

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO.-** Oro har, ados gaude proposatutako aldatetarekin. Dena den, alkateak azaldu duen alderdi bat dela medio, abstenituko gara. APILLen aldarrikapenez ari naiz. Uste dut denok jaso dugula.

Mota bat baino gehiago dago, establezimenduaren kategoriaren arabera sailkatuta. APILLek eskatu zuen pubek ere aukera izan behar zutela kafetegi eta tabernen moduko ordutegia edukitzeko. Establezimendu horiek Laudion bizi duten egoera eta establezimendumota horren kopurua ikusita, eskaera hori arazoizkoa iruditzen zitzaigun. Ez dugu uste aparteko ezer gerta zitekeenik baimena emateagatik. Gerora, zarataren erruz arazorik gertatuko balitz, ordenantza aldatzea dago.

Bestalde, araudi zorrotzagoa ezartzeko eta interpretazio malguagoa egiteko aukera ere aipatu zen.

Bi establezimendu-motei ordutegi bera ezartzearen alde gaude; horregatik, bada, abstenituko gara.

**TXARO SARASUA DIAZ.-** Ulertzen dugu, ostalariek eskatuta aldatu dela Ordenantza. Haien negozioei bultzada eman nahi diete, denok jakin badakigunez, euren jarduera nabarmen jaitsi delako.

Visto lo visto, no vamos a votar en contra, ya que sabemos que hay que darles una solución a las necesidades y los problemas de los hosteleros, pero pensamos que esta ordenanza no arregla nada y que además es inadecuada. Tengo que manifestar que estamos preocupados por el tema de las terrazas. Pensamos que a los otros grupos les ocurrirá lo mismo. Seguramente, dentro de poco muchos de nosotros no vamos a estar en la siguiente legislatura. Pero la próxima Corporación seguramente va a tener que hacer frente a los problemas derivados del uso de las terrazas como el ruido de la calle, el humo etc.

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO.-** Aunque estamos básicamente de acuerdo con la modificación que se plantea, hay un asunto, que se ha aclarado por parte del Alcalde, que nos va a llevar a abstenernos. Lo es el hecho de atender a una reivindicación que ha planteado APILL, que creo que hemos recibido todos.

Si bien es cierto que hay distintos grupos en función de la categoría del establecimiento, APILL solicitaba la posibilidad de que los Pub también pudieran disponer de terrazas en el mismo tiempo que las cafeterías y/o bares. A nosotros esto nos parecía razonable en atención a la situación que vive este tipo de establecimientos en Llodio y en atención al número de establecimientos que hay. Creemos que no pasaba nada por autorizarlo y si se dieran problemas por el tema del sonido, proceder a modificarlo.

También es verdad que se comentó la posibilidad de tener una normativa más estricta y una interpretación más laxa.

Como estamos de acuerdo en que se establezca un mismo horario para los dos grupos es por lo que nos vamos a abstener.

**TXARO SARASUA DÍAZ.-** Nosotros entendemos que se ha procedido a la modificación de esta Ordenanza a petición de la hostelería porque ellos quieren relanzar de nuevo sus negocios porque, como todos conocemos, ha decaído mucho su actividad.





Guri ere ongi iruditzen zitzaigun Ordenantzan terraza-ordutegi bera ezartzea establezimendu guztientzat, kontuan hartuta, gainera, ordutegia neurritzkoa zela eta ostalariak eurak ere ados zeudela.

Azpimarratu nahi dut herritarrak terrazak erabiltzen dituzten ala ez gorabehera, kalean jendea dabilena, asteburuetan batez ere. Ondorioz, zarataren kontua eztabaidarako gai izan daiteke etorkizunean.

Edonola ere, guztioi ordutegi bera ezartzeko eskaera sar zitekeen Ordenantzan. Bestela, terraza batzuk goizago itxiko dituzte, eta beste batzuk beranduago.

Ordutegia bateratzeko eskaera oso egokia iruditzen zitzaigun. Gainera ostalariak ados zeuden, zarata saihesten lagunduko zuela pentsatzen zutelako.

Horiek guztiak horrela, beraz, abstenituko gara.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Nire ustez, Ordenantzaren aldaketa honetan, ostalariak helarazitako eskari guztiak jaso dira.

Pena da xehetasun txiki batengatik ez lortzea Ordenantza honek babes handiagoa. Izan ere, Ordenantza hau beharrezkoa da, beste behin udaletatik kanpo hartutako erabaki baten ondorioei aurre egiteko. Bitxia da, ezen erabakia udaletatik kanpo hartu bada ere, udaletan sortzen dituela arazoak.

Guk ez dugu arazoa sortu, baina guri dagokio konpontzea. Agian eztabaidaren jatorria da Legea eman aurretik ez digutela gure iritzia galdetu, baina, gero, bat-batean, guk jasan behar dugu arazoa.

Ostalariak egindako eskaerak jaso nahi izan ditugu. Ostalaritza aldatzen ari da, eta ostalariak terrazei eman nahi diete bultzadarik handiena, euren negozioak aurrera eramaten lagunduko dien elementu gisa. Orain, Tabakoaren aurkako Legea

Es cierto que tampoco a nosotros nos parecía mal que se contemplase en esta Ordenanza que el horario de terrazas fuera igual para todos, teniendo en cuenta que no es un horario desmedido y que los propios hosteleros aceptaban.

También quiero poner en valor que estén o no las terrazas, los ciudadanos están en la calle, sobre todo los fines de semana. Por lo tanto el tema del ruido puede generar, en un futuro, un debate.

De cualquier manera creo que esta petición, de igual horario para todos, se podría haber incorporado. De lo contrario habrá unas terrazas a unas horas y otras a unas horas más bajas.

Esta nos parecía muy conveniente, teniendo en cuenta, además, la predisposición de la hostelería para poder evitar los ruidos.

Por lo tanto, por esto, nos vamos a abstener.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Creo que lo que son las pretensiones que la hostelería ha trasladado para modificar la Ordenanza, se han recogido todas.

A mí me da pena que por un pequeño detalle no tenga mayor apoyo esta Ordenanza porque, además, es necesaria derivada, nuevamente, de una Ley ajena a los Ayuntamientos en donde el problema cobra todo su vigor.

Nosotros no somos los causantes del problema, pero sí somos quienes debemos solucionarlo. Quizás el debate sea por qué no se nos ha preguntado antes de sacar la Ley cuando luego, de repente, el problema nos viene a nosotros.

Hemos querido ser permeables a los requerimientos que nos trasladaba la hostelería. Esta está cambiando y el elemento de las terrazas es donde mayor énfasis pone la hostelería para conseguir la viabilidad de sus negocios. Ahora



indarrean jarri denetik, kalera irten behar da, are edariak hartzeko ere, eta, horregatik, terrazek gero eta garrantzi handiagoa dute.

Ordenantza honek pubei jartzen zaizkien mugen arazoa konpontzen du. Agian, onartu genuenean ez ginen arazo horren jakitun. Publikoki esan dut, eta ostalariei ere aitortu diet. Egia da, muga horrek ziurrenik ez duela zentzu handirik.

Ordutegia mugatzeak zentzu handiagoa duela uste dugu. Tabernak eta pubak ez direla gauza bera, eta batzuek eta besteek dezibelio-maila desberdina sortzen dute. Azkenean, Ordenantzaren azken xedea da espazio publikoa eta zarata-maila zaintzea.

Ez dakit hartutako neurria egokiena den ala ez, hori ikusiko da. Hori da, hain zuzen, babestu nahi dena, eta etorkizunerako tresna bat prestatu, arazorik sortuz gero, erabili ahal izateko.

Gaizkak esan du araudiak, zorrotza den heinean, tresnak sortzeko bide ematen duela, eta ados nago. Dena den, nik nahiago dut malgutasunez jokatu legedia aplikatzeko orduan. Uste dugu Ordenantza hau zorrotza dela, eta arazo-iturritzat jo dugun alderdia arautzen duela.

Kalean bizitzeko eskubidea eta herritarrek atsedean hartzeko duten eskubidea bateratu nahi izan ditugu, bizikidetzara-azaroak saiheste aldera, eta asmatu izana espero dugu.

**Bozkatuta, onartu da gehiengoz eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

**Alde: EAJ/PNV (7).**

**Abstentzioa: PSE-EE (3), PP (2) eta Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao eta Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kideak.**

**43.- LAMUZA KONPLEXUA ETA UGARTE DORREAREN INGURUNEA BABESTEKO ETA KONTSERBAZIORAKO PLAN**

con la Ley antitabaco hay que salir a la calle, incluso, a tomar las consumiciones, por lo que cobra mayor protagonismo.

Esta Ordenanza resuelve un problema del que, quizás, cuando se aprobó anteriormente no éramos conscientes de él, que es la limitación que se pone a los Pub. Lo he reconocido públicamente y se lo he reconocido a ellos. Es verdad que no parece que tenga mucho sentido su limitación.

Le vemos más sentido a la limitación del horario, sobre todo porque Bares y Pub no son lo mismo y la diferencia del nivel de decibelios que provocan unos respecto al que provocan los otros es sustancial. Al final, lo que pretende proteger la Ordenanza es el espacio público y los niveles de ruido.

No sé si es la mejor medida o no, lo iremos viendo. Lo que pretende es proteger eso y tener una herramienta para el caso de que se pueda proceder en caso de que se den problemas.

Comparto la reflexión que ha hecho Gaizka de que la normativa, en la medida que sea estricta, te da herramientas. Yo prefiero ser laxo en su aplicación. Creemos que esta Ordenanza es estricta y que regula lo que hemos sido capaces de prever como problema.

Espero que hayamos sabido acertar para conciliar lo que puede ser un problema de convivencia entre el derecho a vivir en la calle y el derecho al descanso que tienen los vecinos.

**Sometida a votación, es aprobada por mayoría, con el siguiente resultado:**

**A favor: EAJ/PNV (7).**

**Abstención: PSE-EE (3), PP (2) y Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao y Josu Zabala Atxa, Miembros No Adscritos.**

**43.- PLAN ESPECIAL DE PROTECCIÓN Y CONSERVACIÓN DEL COMPLEJO DE LAMUZA Y ENTORNO DE LA TORRE DE**



**BEREZIA.- BEHIN BETIKO ONARPEN PROPOSAMENA.- PROPOSAMENA, HIRIGINTZA ETA INGURUGIRO ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARI LAGUNTZAILEAREN BITARTEZ, AURRETIKO OSOKO BILKURARAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENAZ.- ONARTUA.**

2010eko azaroaren 19 eguneko Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak hartu zuen erabaki bidez, onartu egin zuen, hasierako izaeraz, aldakuntzekin, Lamuza konplexua eta Ugarte Dorrearen ingurunea Babestu eta Kontserbaziorako Plan Berezia, Arabako Foru Aldundiko Foru Administrazio Saileko Diputatu Titularrak 10-08-05 eguneko sarrerako 10591 zk.z erregistratutako dokumentuz aurkeztutako eskaeraren arabera.

Behin jendaurreko informazio publikorako epea amaituta 11-01-08 egunean, horren iragarkia 10-12-13 eguneko 140. zenbakia duen ALHAOn argitaratuta azaldu ostean, ez dago jasota alegaziorik aurkeztu denik. Espedientean jasota daude 28-02-11 egunean sarrerako 2155 zk.z erregistratutako Urak eta 11-03-01 eguneko sarrerako 2226 zk.z erregistratutako Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bidali dituzten txostenak eta idatziak.

Ikusirik espedientean jasota dauden zerrendatutako txostenak, bereziki, a) 10-11-15 egunean idazkari nagusiak H 010/07 kodez eskainia, b) 11-05-02 eguneko A-177/11 kodea duen udal arkitektoaren txostena eta c) Hirigintza eta Ingurumen Arlo-burua den Administrazio Orokorreko Teknikariaren 11-05-02 eguneko G-015/11 kodea duena.

Hirigintza eta Ingurumen Arloko Zinegotzi Ordezkeri Laguntzaileak aurkeztuta eta Alkatetzak proposatuta, aztertu ostean osoko bilkurako gaietarako batzordeak 11-05-09ko bileran hartutako irizpena, udalbatzarraren osoko bilkurak ondorengoa erabaki du:

Lehen.- Onartzea behin betiko Lamuza Konplexua eta Ugarte Dorrearen ingurua Babestu eta Kontserbaziorako Plan Berezia, Arabako Foru Aldundiko Arkitektura Zerbitzuak 11-04-15 egunean sarrerako 4446 zk.z erregistratutako

**UGARTE.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEFINITIVA.- PROPUESTA DE LA ALCALDÍA PRESIDENCIA, A TRAVÉS DE LA CONCEJALÍA DELEGADA ADJUNTA AL ÁREA DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE, PREVIO DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ASUNTOS DE PLENO.- APROBADA.**

Mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento, adoptado en sesión de 19 de noviembre de 2010, se aprobó inicialmente con modificaciones el Plan Especial de Protección y Conservación del Complejo de Lamuza y Entorno de la Torre de Ugarte, según solicitud presentada por el Diputado Titular del Departamento de Administración Foral de la Diputación Foral de Álava y documento registrado el 05-08-10 (nº de entrada 10591).

Una vez vencido el 08-01-11 el periodo de información pública subsiguiente al anuncio hecho en prensa y en el BOTHA nº 140, de 13-12-10, no consta la presentación de alegaciones de oposición contra dicho Plan Especial. En el expediente constan los escritos e informes remitidos por parte de URA (registrado el 28-02-11, nº de entrada 2155) y del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco (registrado el 01-03-11, nº de entrada 2226).

Vistos los informes relacionados que obran en el expediente, en concreto el de referencia H 010/07 de la Secretaria emitido en fecha 15-11-10, el informe del Arquitecto Municipal referencia A-177/11, de 02-05-11 y el informe emitido por el T.A.G. Jefe del Área de Urbanismo y Medio Ambiente en fecha 02-05-11, referencia G-015/11.

A propuesta de la Alcaldía, a través del Concejal Delegado Adjunto del Área de Urbanismo y Medio Ambiente, una vez visto el dictamen de la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno de 09-05-11, el Ayuntamiento Pleno acuerda:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Protección y Conservación del Complejo de Lamuza y Entorno de la Torre de Ugarte según documentación refundida registrada el 15-04-11 (nº de entrada 4446), aportada por el



dokumentazio bateginaren arabera.

Bigarrena.- Xedatzea Gordailuan uztea Arabako Foru Aldundiko Hiri-Plangintzako Administrazio Erregistroan (hala euskarri informatikoan nola ohiko paperezko euskarrian) behin betiko onartutako garapeneko planeamenduko dokumentu hau, Euskadiko Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluan xedatutakoarekin bat.Hirugarrena.

Xedatzea, halaber, behin aipatu den Erregistroan gordailuan uztearen bete beharra bete ondoren, argitara ematea behin betiko erabaki honen eduki osoa eta Plan Bereziko hirigintza arauak ALHAOn, hala nola akordio hau Araban zabalkunderik handieneko egunkariren batean, Euskadiko Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

**Bozkatuta, onartu da aho batez eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

**Alde: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3), PP (2) eta Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Bobeda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao eta Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kideak.**

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Amaitzeko, jakinarazi nahi dizuet Osoko Bilkura bat egiteke dugula. Onartzeke dauden aktak onartzeko izango da.

Araudiaren arabera, aktak onartu ahal izateko azken eguna ekainaren 8a da. Zehazki, eta zuen agendak antolatzeke astia izan dezazuen, aurreratzen dizuet, ekainaren 8an izango dela, goizeko 9etan.

**ROSA TORRES CORRES.-** Alde egin aurretik, esan nahi dizuet gaur, azken Osoko Bilkuraren egun honetan, alkatean urtebetetzea dela. Horretatik, zorionak eman nahi dizkiot, eta eguna hasi duen baino hobeto amai dezala opa diot. Hortaz, zorionak.

Servicio de Arquitectura de la Diputación Foral de Álava.

Segundo.- Disponer el depósito en el Registro Administrativo del Planeamiento Urbanístico de la Diputación Foral de Álava (tanto en soporte informático como en soporte convencional en papel) de este documento de planeamiento de desarrollo definitivamente aprobado, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el art. 89 de la Ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Tercero.- Disponer asimismo que, una vez cumplido el depósito en el indicado Registro, se proceda a la publicación en el BOTHA del contenido íntegro del presente acuerdo de aprobación definitiva y las normas urbanísticas del Plan Especial, así como el mismo acuerdo en un diario de los de mayor difusión en Álava, todo ello de conformidad con lo previsto en el art. 89.5 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

**Sometida a votación, es aprobada por unanimidad, con el siguiente resultado:**

**A favor: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3), PP (2) y Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao y Josu Zabala Atxa, Miembros No Adscritos.**

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Solo quiero decir que queda un Pleno pendiente, el de aprobación de las actas que nos quedan por aprobar.

El último día establecido por norma para aprobar las actas es el día 8 de junio. Para que podáis organizar a vuestras agendas os digo que el 8 es miércoles, a las 9 de la mañana.

**ROSA TORRES CORRES.-** Antes de marcharnos quiero decir que hoy, día del último Pleno coincide con el cumpleaños del Señor Alcalde y quiero felicitarle y desearle que acabe el día mejor que como lo ha empezado. O sea que, felicidades y zorionak

**Laudio**



**Llodio**

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Eskerrik asko.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Muchas gracias.

Gai gehiagorik ez izanik, Alkateak bilera amaitutzat jo du hamar eta hamarrak izanik.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las diez horas y diez minutos.